

# **Compte rendu du Conseil Municipal du 25 mai 2020**

## **2020ko maiatzaren 25eko Herriko Kontseilua**

Hor zirenak: DARGUY, DUHALDE, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, OXARANGO, PEREZ, SABALOUÉ andereak, eta BARBIER, BARNECHE, BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU jaunak.

Ezin etorria jakinarazia zutenak:

Bilkura hasi da GASTAMBIDE jaun auzapeza mahaiburu. Honek beren funtzioan instalatu diren Herriko Kontseiluko kideak deklaratu ditu.

Kattalin DUHALDE anderea bilkurako idazkari izendatua izan da.

### **1 - AUZAPEZAREN BOZKATZEA**

Maite OXARANGO andereak, Herriko Kontseiluko kide gehienak, mahaiburu kargua hartu du eta Herriko Kontseiluari galdatu dio auzapezaren hautatzea.

Auzapeza hautatzeko isilpean behar da bozkatu eta bali diren bozen gehiengo osoa behar da.

Arño Gastambide hautagai zen.

Boz zenbaketaren emaitza hau izan da:

Boz kopurua: 15 kentzekoak (boz zuriak edo beste): 0

Bali zen boz kopurua: 15 Gehiengo osoa: 8

Erdietsi ditu: Arño GASTAMBIDEk: 15 (hamabost) boz.

### **2 – AUZAPEZORDE POSTUEN SORTZEA**

Auzapezak biltzarkideei oroitarazi die auzapezorde kopurua sortzea Herriko Kontseiluaren eskumenekoa dela.

Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L 2122-2 artikulua arabera, Herriko Kontseiluak libroki finkatu behar du auzapezorde kopurua, baina kopuru horrek ez du gainditu behar Herriko Kontseiluaren kopuru legalaren % 30. Horrela, ehuneko horren arabera, Aiherrako Herriko Etxean 4 auzapezorde izan daitezke gehienez. Aitzineko herriko kontseiluetan indarrean zen funtzionamenduaren arabera, auzapezak proposatu du 4 auzapezorde posturen sortzea.

### **3 – AUZAPEZORDEEN HAUTATZEA**

Herriko Kontseiluari galdatu zaion auzapezordeen hautatzea.

Herriko taldearen interesa etengabe pizteko, auzapezordeak bi urte guzietz berrituko dira.

1 000 biztanle eta gehiago diren herrietan auzapezordeak hautatuak dira gehiengoan den zerrendaren arabera, zerrendak nahasi gabe eta abantailazko bozketarik gabe.

*Hautagaiak hauek ziren:*

Frédéric Hernandez

Maite Oxarango

Samuel Biscay

Chantal Echevertz

Boz zenbaketaren emaitza hau izan da:

Boz kopurua: 15 kentzekoak (boz zuriak edo beste): 0

Bali zen boz kopurua: 15 Gehiengo osoa: 8

Auzapezorde izendatuak izan dira: **HERNANDEZ Frédéric jauna, OXARANGO Maité anderea, BISCAY Samuel jauna, ECHEVERTZ Chantal anderea.**

Bozketa horien ondotik, jaun auzapezak **Tokiko hautetsiaren araudiaren** irakurketa laburtua egin du, kontseilari guzietan zutena.

1. Tokiko hautetsiak bere funtzioak betetzen ditu alderdikeriarik gabe, artaz, duintasunez, zintzotasunez eta zuzentasunez.
2. Bere karguaren betetzean hautetsia denen onetan ari da, eta bere edo partikular baten onetan bakarrik ezin izanen du ari izan, ez zuzenki ez zeharka.
3. Herriko hautetsiak interes aurkakotasun oro baztertuko du edo segidan geldiaraziko. Bere interes pertsonalak jokoan direlarik organo erabakitzaileari aurkeztu aferetan, herriko hautetsiak hitz ematen du haien ezagutaraztea eztabaidatu eta bozkatu aitzin.
4. Herriko hautetsiak hitz ematen du ez dituela beste xede batzuetarako erabiliko bere funtzioa betetzeko esku emanak zaizkion baliabideak eta ahalak.
5. Bere funtzioaren kariatara, herriko hautetsiak ez du bere agintaldia eta funtzioak bururatu eta abantaila pertsonal edo profesionalik emanen dion neurririk hartuko.
6. Herriko hautetsia erregulariki jin behar da organo deliberatzailearen bilkuretara eta izendatua izan den instantzietara.
7. Herriko hautetsia sufragio unibertsaletik heldu da, eta bere ekintzen erantzule da agintaldi osoan, herritarren eta eskualdeko elkargoaren aitzinean, eta hauei bere funtzioen kariatara eraman ekintzen eta hartu erabakien kontu emanen die.

#### **4. Herriko batzordeen osatzea**

Auzapezak azaldu du Lurralde Elkargoen Kode Nagusiaren L.2122-22 artikulua arabera Herriko Kontseiluak osa ditzakeela erabakiak prestatu behar dituzten batzordeak, Herriko Kontseiluari aurkeztuko zaizkion aferak ikertuz.

Herriko batzordeak herriko kontseilarietaz baizik ez dira osatuak. Eskubidearen arabera, auzapeza batzorde guzietako lehendakaria da.

Hautetsiei galdegina zaie gutienez 4 batzordetan sartzea eta nagusiki B edo C laukietan. Hona batzordeak:

<b>A</b>	
Finantzak	Biscay S. Hernandez F. Oxarango M. Sabaloue V. Oteiza R.
Ekonomia	Biscay S. Hernandez F. Oxarango M. Sabaloue V. Oteiza R.
Gai sozialak	Biscay S. Hernandez F. Oxarango M. Sabaloue V. Oteiza R.

**B**

Hezkuntza/Gazteria	Biscay S. Perez C. Echeverz Ch. Sabaloue V. Duhalde K. Darguy Am.
Elkarte bizia/ Animazioak	Biscay S. Perez C. Echeverz Ch. Sabaloue V. Duhalde K. Darguy Am.
Euskara/kultura	Biscay S. Perez C. Echeverz Ch. Sabaloue V. Duhalde K. Darguy Am.
Komunikazioa	Biscay S. Perez C. Echeverz Ch. Sabaloue V. Duhalde K. Darguy Am.
Bestak eta ospakizunak	Biscay S. Perez C. Echeverz Ch. Sabaloue V. Duhalde K. Darguy Am.
<b>C</b>	
Bideak	Hernandez F. Perez C. Echeverz Ch. Parachou H. Etcheverry S. Darguy Am. Barnetche P. Oteiza R. Mongabure Ph. Oxarango M. Barbier K.
Herriko eraikinak	Hernandez F. Perez C. Echeverz Ch. Parachou H. Etcheverry S. Darguy Am. Barnetche P. Oteiza R. Mongabure Ph. Oxarango M. Barbier K.
Herriaren antolaketa	Hernandez F. Perez C. Echeverz Ch. Parachou H. Etcheverry S. Darguy Am. Barnetche P. Oteiza R. Mongabure Ph. Oxarango M. Barbier K.

<b>D</b>	
Hirigintza	Parachou H. Etcheverry S. Duhalde K. Barneche P. Mongabure Ph. Barbier K.
Laborantza eta oihanak	Parachou H. Etcheverry S. Duhalde K. Barneche P. Mongabure Ph. Barbier K.
Garapen iraunkorra	Parachou H. Etcheverry S. Duhalde K. Barneche P. Mongabure Ph. Barbier K.

## **5 . Eskaintza Deialdien Batzordearen izendatzea**

Auzapezak azaldu du Herriko Etxeak behar duela Eskaintza Deialdien Batzordea (EDB) izendatu. Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L.1414-1 artikularen arabera batzorde hori baitezpadakoa da.

Auzapezak jakinarazi du behar zirela Eskaintza Deialdien Batzordean izanen diren Herriko Kontseiluko kideak izendatu. Zehaztu du herrian 3 500 biztanle baino gutiago baitira, batzordean lehendakari den auzapeza badela eta Herriko Kontseiluko hiru kide.

Auzapezak jakinarazi du batzorde horren funtzionamenduari dagokionez testuek quorumaren araua baizik ez duela aurreikusten. Beraz, proposatu du:

- Bilkura horiek ez direla publikoak izanen;
- Batzordeko lehendakariak boz nagusia ukanen duela batzordea zatikatua izanez geroz;
- Bozkatzeko moldea arrunta izanen da (ez da isilpeko bozkatzerik izanen ez eta ere bozkatze

publikorik; eskuzko bozkatzea izanen da).

**Kideak:**

-SABALOUÉ Virginie anderea  
-MONGABURE Philippe jauna  
-OTEIZA Raymond jauna

**Ordezkoak:**

- PEREZ Carine anderea  
- BARNECHE Patrick jauna  
- OXARANGO Maité anderea

**6 – BIGA BAT HBPko ordezkarien izendatzea**

Auzapezak jakinarazi du Herriko Etxeak behar zituela hiru tituludun eta hiru ordezko hautatu BIGA BAT Herriarteko Sindikatuan. Honek bi eskoletako Herriarteko Bateratze Pedagogikoaren ardura badu.

- 3 tituludunen eta 3 ordezkoren hautatzea

**Tituludunak:**

-ECHEVERTZ Chantal anderea  
-Arño GASTAMBIDE jauna  
-DUHALDE Kattalin anderea

**Ordezkoak:**

- DARGUY Anne Marie anderea  
- HERNANDEZ Frédéric jauna  
- OXARANGO Maité anderea

**7 – Auzapezari eman ordezkariak**

Auzapezak jakinarazi du Lurralde Elkargoen Kode Nagusiaren L.2122-22 artikulua biltzarrari parada ematen ziola auzapezari ordezkari izateko, agintaldiak irauten duen artean. Artikulu horrek berak zerrendatzen dituen ordezkariak eman dakizkio:

Oroitarazi du Kodeko L. 2122-17 artikulua aurreikusi arauak hauek direla: *“eskas izanez geroz, kargutik kenduz geroz, baliogabetuz geroz, edo beste trabarik gertatuz geroz, auzapezorde batek (izendatzearen ordenan) auzapeza behin-behinean ordezkari izan da bere funtzio guzietan”*

- 1° herriko zerbitzu publikoek erabili herriko jabetzen esleitzea gelditzea eta aldatzea, eta herriko jabetzen mugatzea;
- 2° Herriko Kontseiluak finkatu neurrian, finkatzea bide eskubideen prezioak, aparkatze prezioak, bideetan eta leku publikoetan aldi bateko pausatze prezioak;
- 3° Herriko Kontseiluak finkatu neurrian, aurrekontuan aurreikusi inbestimenduen finantzatzeko maileguen egitea, baita ere maileguen kudeatzeko baliagarri diren finantza operazioak;
- 4° 90 000 € (BEZa gabe) baino guttiagoko zenbatekoa duten tratuen eta modelo hitzarmenen prestatzeko, eskualdatzeko, gauzatzeko eta ordaintzeko hartu behar diren erabaki guziaz hartzea;
- 5° erabakitzea gauzen alokatzea bukatzea edo berrikustea, gehienik hamabi urteko eperako;
- 6° asurantzaren kontratuak egitea eta doakien ezbeharren kalte-ordainen onartzea;
- 7° herriko zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren kontu arduren sortzea, aldatzea edo kentzea;
- 8° hilerrietako kontzesioen ematea edo berriz hartzea;
- 9° baldintzarik eta kargurik gabeko emaitzak eta ondareztat emanak onartzea;
- 10° ontasun higigarrien besterentze antolamenduak erabakitzea 4 600 € arte;
- 11° lansarien finkatzea eta abokatu, notario, uxer eta esperten gastuak eta ordainsariak pagatzea;
- 12° zerga zerbitzuen estimazioen neurrian, desjabetuei jakinarazi behar zaien Herriko Etxearen eskaintzen zenbatekoa finkatzea eta haien eskabideei ihardestea;
- 13° eskoletan ikasgelen sortzea erabakitzea;
- 14° lerrokatzeen finkatzea hirigintza dokumentu baten aplikatzeko;
- 15° Herriko Etxearen izenean gauzatzea Hirigintza Kodeak finkatu erosteko lehentasun eskubidea;
- 16° Herriko Etxearen izenean auzitegira jaukitzea edo Herriko Etxea defendatzea auzitegira jaukia izanez geroz, Herriko Kontseiluak finkatu kasuetan, eta gehienez 1 000 €-ko hautsi-mautsi bat egitea hirugarren batekin;

- 12° Herriko Etxeko autoak inplikatuak diren istripuen ondorioen ordaintzea, 10 000 € arte;
- 18° Hirigintza Kodeko L. 324-1 artikulua aplikatuz, Herriko Etxearen iritzia ematea Lurren Tokiko Erakunde Publiko baten operazioak aitzin;
- 19° Hirigintza Kodeko L. 311-4 artikuluko azken aitzineko paragrafoak finkatu hitzarmena izenpetzea. Honek zehazten ditu eraikitzaile batek antolaketa hitzartu gune baten hornitzeko kostuetan parte hartzeko baldintzak;
- 20° diruzaintza lerroak obratzea gehienez 100 000 € zenbatekoaren oinarrian;

21° Hirigintza Kodeko L.214-1-1 artikulua aplikatuz, Herriko Etxearen izenean eta Herriko Kontseiluak finkatu baldintzetan, kode bereko L.214-1 artikulua finkatzen duen lehentasunez erosteko eskubidea baliatzea edo esku uztea;

22° herrian antolaketa edo obra operazioetarako egin behar diren prebentziozko arkeologia diagnostikoei buruzko Ondarearen Kodeko L.523-4 eta L.523-5 artikuluetan aipatuak diren erabakien hartzea;

23° Herriko Etxearen izenean, baimentzea kide den elkarteetan kideztaren berritzea;

24° Herriko Etxearen izenean, desjabetze eskubidea baliatzea onura publikoa dela kausa, Baserrialdearen eta Itsas Arrantzaren Kodeko L. 151-37 artikulua finkatuaren arabera, mendi guneetan egurrak metatzeko bitarteko guneen sortzeko beharrezkoak diren obren gauzatzeko;

25° finantzatzen duen organismo orori dirulaguntzak galdegitea eskabide guzientzat;

26° herriko ontasunen desegiteei, aldaketei edo eraikitzei doakien hirigintza-baimen eskaerak egitea.

## **8 – Auzapezaren eta auzapezordeen funtzioetarako ordainsariak**

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio herriko hautetsien ordainsariak Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L.2123-20 artikulua eta ondokoek finkatzen dituztela.

Jakinarazi du auzapezaren eta auzapezordeen funtzio ordainsariak maila demografikoaren arabera finkatuak direla, Funtzio Publikoko indize mailaren bukaerako indize gordinaren ehunetotan.

Auzapezak eta auzapezordeei eman ordainsaria aurreikusi tasa gorenean finkatzen da, salbu auzapezak hala galdaturik Herriko Kontseiluak bestela erabakitzen balu.

Auzapezaren proposamena: Aho batez onartua.

<b>Biztanle kopurua</b>	<b>Tasa gorena</b>	<b>Legezko ordainsari gordina</b>	<b>Auzapezarentzat proposamena</b>	<b>Orain arteko ordainsaria</b>
500etik 999ra	40,3	1 567,43		
1000tik 3499ra	51,6	<b>2 006,93</b>	1 567,43	1205,71
<b>Biztanle kopurua</b>	<b>Tasa gorena</b>	<b>Ordainsari gordina</b>	<b>Auzapezordeentzat proposamena</b>	<b>Orain arteko ordainsaria</b>
500etik 999ra	10,7	416,17		
1000tik 3499ra	19,8	<b>770,10</b>	<b>253,42</b>	194,94

### **Gainerako gaiak**

Nahi dugu agerian utzi dendariak egin lan ohargarria, alabaina maska josten ari izan dira aihertarrentzat: 500 maska baino gehiago josi dituzte borondate onez, eta herritarrei banatu dira.

Gozategia ostatu-jatetxeak behar luke ireki gobernamentuaren erabakien arabera, hain segur ekainaren 5ean.

Haurrak eskola publikora itzultzeko antolatu gara indarrean diren osasun-betebeharren arabera, eta biziki hertsagarriak dira.

Kantina proposatu zaie eskola publikoko eta pribatuko hurrei.

Gozategiko n-1 gelei doakien eskaintza-deialdia ikertu da. Obralariak beharko du egiaztatu; zenbait zati debaldekoak izan daitezke.

Kantinaren handitzeko obrak blokatuak dira mementoan, eta ekainaren bigarren astean beharko lukete berriz hasi.

Bilkura 22:00etan bururatu da

Auzapeza,

Arño GASTAMBIDE